

KARTEL LEHIAKETAREN OINARRIAK

GORDOFIARIEN AURKAKO ASTEA – UPV/EHU BIZKAIKO CAMPUSA (LEIOA, 2026KO MARTXOA)

1. Testuingurua eta lehiaketaren xedea

Martxoaren 4an Obesitatearen Nazioarteko Eguna ospatzen da; hala ere, mundu osoko aktibista antigordofobek urteak daramatzate Gordofobiaren Aurkako Nazioarteko Eguna aldarrikatzen, pertsonak beren gorputzagatik edo pisuagatik estigmatizatzeari amaiera emateko. Horregatik, Bizkaiko campuseko unibertsitate-komunitateak aldarrikapen horrekin bat egin nahi du, eta Gordofobiaren Aurkako Astea antolatuko da Bizkaiko campusean.

Testuinguru horretan, kartel-lehiaketa hau deitzen da, herritarrek sentsibilizatzeko, gorputz-aniztasuna ikusarazteko eta errespetuan, inklusioan eta diskriminaziorik ezean oinarritutako kultura sustatzeko helburuarekin.

Ekimen hau izaera instituzionaleko unibertsitate-proposamena da, eta proiektio pertsonala, profesionala eta mediatikoa du. Hori dela eta, aukera bikaina da proposamen sortzaile batek espazio publikoan, komunikabideetan eta gizarte-elkarrizketan benetako eragina izan dezan.

Kartel irabazlea Bizkaiko Campusak zabalduko du, formatu fisikoan zein digitalean, eta hedabide lokal zein autonomikoetan oihartzun handia izango du. Halaber, antolatuko diren jardueretan diziplina anitzeko adituak izango dira (nutrizionistak, aktibistak, kazetariak, publizistak...), eta haiek ere Gordofobiaren Aurkako Nazioarteko Egunaren zabalpandean lagunduko dute.

2. Parte-hartzaileak

-Lehiaketan parte hartu ahal izango dute Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko edozein gradutan edo masterretan matrikulatutako ikasleek.

-Parte-hartzea banakakoa edo taldekoa izan daiteke, gehienez bi pertsona talde bakoitzeko.

-Pertsona edo talde bakoitzak gehienez bi lan aurkeztu ahal izango ditu.

3. Gaia

Aurkeztutako proposamenek modu esplizituan edo sinbolikoan jorratu beharko dute gordofobiaren aurkako borroka, gorputzagatik edo pisuagatik pertsonak diskriminatzen, estigmatizatzen edo baztertzen dituen edozein jarrera, praktika edo diskurtsotzat ulertuta.

Bereziki baloratuko dira honako irizpide hauek:

- Gorputz-aniztasuna sustatzen duten eta gorputz guztien inklusioa aldarrikatzen duten proposamenak.
- Begirada kritikoa, enpatikoa eta errespetuzkoa eskaintzen duten lanak.
- Estereotipoetara edo erruduntasuna indartzen duten diskurtsoetara jo gabe gizarte-kontzientzia sortzen duten proposamenak.

4. Obraren formatua eta baldintzak

-Teknika: librea (ilustrazioa, diseinu grafikoa, collagea, argazkigintza, tipografia, teknika mistoak, etab.).

-Formatua: kanpoko publizitate-euskarrietara (kartela) zein euskarri digitaletara (webgunea eta sare sozialak) moldagarria.

-Hizkuntzak: gaztelania eta euskara (biak).

-Identifikazioa: lanek ez dute sinadurarik ezta egilearen datu identifikagarriarik ikusgai izango.

-Originaltasuna: aurkeztutako lanek originalak eta argitaragabeak izan beharko dute.

-Logoak: EHUren eta Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatearen logotipoak. Logotipoak honako [esteka honetan](#) eskuratu ahal izango dira:

5. Edukien mugak

Ikuspegi etiko, inklusibo eta errespetuzkoa bermatzeko asmoz, ez dira onartuko estereotipoak, aurreiritziak edo diskurtso gordofobikoak indartzen dituzten proposamenak, nahiz eta modu sinbolikoan edo itxuraz neutral aurkeztu.

Zehazki, honako hauek saihestu beharko dira:

- Gorputz lodia gaixotasunarekin, erruarekin, arriskuarekin edo kontrol faltarekin lotzen duten metaforak.
- Gorputza neurtu, zuzendu edo eraldatu beharra iradokitzen duten irudi edo baliabideak.
- Baliabide bisual estereotipatuak (balantzak, zinta metrikoak, erregelak, pisuak).
- “Lehen/ondoren” motako irudiak.
- Dietei, pisu-kontrolari edo edertasun-kanon normatiboetarako buruzko erreferentziak.
- Gorputz lodiak karikaturizatzen, barregarri uzten edo deshumanizatzen dituzten irudikapenak.
- Erantzukizun indibiduala edo erruduntasuna indartzen duten diskurtsoak.

Proposamenek gorputz-aniztasunean, errespetuan, duintasunean eta ikusgarritasun positiboan oinarritutako ikuspegia lehenetsi beharko dute, ikuspegi paternalista, moralizatzaile edo errudungarri oro saihestuz.

6. Glosarioa eta orientazio kontzeptuala

Deialdi honen ondorioetarako, honela ulertzen da:

- Gordofobia: gorputzagatik edo pisuagatik pertsonak diskriminatzen, estigmatizatzen edo baztertzen dituzten jarrera, praktika eta diskurtsoen multzoa.
- Gordafobia: genero-ikuspegitik ulertutako gordofobia; presio eta estigmatizazio handiagoa jasaten dute, bereziki, neska, emakume gazte eta emakume heldu gazteek.
- Gorputz-aniztasuna: gorputzen aniztasuna giza esperientziaren parte legitimo gisa aitortzea, hierarkiarik edo kanon normatiborik ezarri gabe.
- Irudikapen ez-estigmatizatzailea: pertsonak estereotipoetara mugatzen ez dituen, infantilizatzen ez dituen eta zuzenketa edo isekaren objektu bihurtzen ez dituen.

Atal honek izaera orientatzailea du, eta sormen-prozesua laguntzea eta gidatzea du helburu.

7. Izena ematea eta lanen aurkezpena

- Lanak formatu digitalean aurkeztu beharko dira. Kartelak JPG formatuan bidali beharko dira honako helbide elektroniko hauetara:

blanca.miguel@ehu.eus eta mariadelmar.rodri@ehu.eus

- Mezuaren gaian honako testu hau adierazi beharko da:

"KARTEL LEHIAKETA – GORDOFOBIAREN AURKAKO ASTEA"

- Fitxategien izendapena:

- Banakako parte-hartzea:

apellido_concursocartel.jpg

(adibidea: miguel@ehu.eus_concursocartel.jpg)

- Parte-hartze kolektiboa (gehienez 2 pertsona):

apellido_apellido_concursocartel.jpg

(adibidea: miguel_rodri@ehu.eus_concursocartel.jpg)

- Izena ematearekin batera, egiletzari eta eskubideen titulartasunari buruzko erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko da, [dagokion inprimakia beteta eta sinatuta](#). Bidali obra-proposamenarekin batera goian adierazitako bi helbide elektronikoetara. Parte-hartzaile bakoitzak —banakakoa zein taldekoa izan— dokumentu hau bete beharko du, eta dagokion proposamenarekin edo

proposamenekin batera erantsi. Fitxategiari honako izena jarri beharko zaio: abizena_declaracion.pdf (adibidez: miguelez_declaracion.pdf).

Proposamenak aurkezteko azken eguna 2026ko otsailaren 23a izango da.

8. Epaimahaia

Epaimahaia komunikazioaren, diseinuaren, kulturaren eta/edo aktibismo sozialaren arloko profesionalek osatuko dute, gorputz-aniztasunaren eta irudikapen inklusiboaren arloan sentsibiltatea eta ezagutza dutenek.

- Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea:
 - Miren Rodríguez González
 - Blanca Miguélez Juan
 - Ainara Miguel Sáez de Urabain
- Zientzia eta Teknologia Fakultatea:
 - Idoia Zarraskin Arizaga
 - Amaia Irazusta Astiazaran

Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da.

9. Balorazio-irizpideak

Honako alderdi hauek baloratuko dira bereziki:

- Gaiari eta ikuspegi etikoari egokitzapena.
- Mezuaren argitasuna eta eraginkortasun komunikatiboa.
- Jatorrizkotasuna eta kalitate kontzeptuala.
- Espazio publikoan duen eragin bisuala.
- Estereotipoen eta diskurtso diskriminatzaileen absentsia.
- 4. atalean jasotako baldintzen betetzea.

10. Sariak

- Kartel irabazlea Bizkaiko Campuseko kanpoko publizitate-euskarrietan zabalduko da Gordofobiaren Aurkako Astearen barruan.

- Hedabide lokal eta autonomikoetan estaldura mediatiko zabala.

- 150 euro EHUtendan parte-hartzaile bakoitzarentzat. <https://www.ehudenda.eus/es/>

11. Egiletza-eskubideak eta ustiapena

Lan irabazlea egilearena edo egileena izango da; hala ere, antolakuntza deitzaileari laga egingo zaizkio obra erreproduzitzeko, banatzeko eta publikoki komunikatzeko beharrezko ustiapen-eskubideak.

12. Doikuntza teknikoak

Kartel irabazlearen inprimaketa edo zabalkunderako beharrezkoak diren doikuntza teknikoak egin behar izanez gero (kolorea, formatua, tipografia edo akats-zuzenketa), horiek egilearekin adostuta egingo dira.

13. Erantzukizuna

Antolakuntzak ez du bere gain hartuko hirugarrenen erreklamazioetatik eratorritako erantzukizunik, aurkeztutako lanen edukiaren ondorioz.

14. Oinarriak onartzea

Lehiaketan parte hartzeak oinarri hauek osorik onartzea dakar.